

‘Bertsolari’ filmaren inguruko hitzaldia, gaur, Bertsoaroa zikloari hasiera emateko

ASIER ALTUNA ETA ANDONI EGAÑAK ESKAINIKO DUTE HITZALDIA, ERRALDOIEN TXOKOAN

Bertso saioak, haurrentzako ekitaldiak, poema errezitaldiak, antzezlanak eta saio musikatuak izango dira zikloaren baitan

MIREN MINDEGIA

IRUÑEA. Aurtengo Bertsoaroa zikloa gaur hasiko da, Asier Altuna eta Andoni Egañak *Bertsolari* filmaren inguruan eskainiko duten hitzaldiarekin. Ekitaldia Erraldoien Txokoan izango da, arratsaldeko 19.30etan.

Donostiako Zinemaldian aurkeztu zen Altunak zuzendutako filma. Bertan jasotako arrakastaren ondoren, joan zen astean iritsi zen zinema aretoetara. Dokumental bertsolaritzaren barrena agerian uztea du helburu eta, horretarako, barrutik bizi duten horien presentzia ezinbestekoa du. Egañak filmean egindako paper garrantzitsuaren eskutik izandako bizipenak azalduko ditu hitzaldian.

Lehenengo ekitaldi honi bestelako ikuskizun eta saioek jarraituko diote, izan ere, zikloa azaroaren 10eraino luzatuko da. Aste honetan bertan, ostegunean, izango da lehenengo bertso saioa, Gurutzeko plazako institutuan. Julen Zelaieta, Xabier Silveira, Igor Elortza, Uxue Alberdi, Sebastian Lizaso eta Beñat Gaztelumendi hitz borrokan jardun beharko dute, gai jartzaile berezi baten agindupean: Andoni Egaña. Antolatzaileek “Zarauzko maisuari” lanbidea aldatu nahi izan diote, “bertsotan bezain zorrotz, umoretsu eta adimentsu jokatu duen” ikusteko.

Urriaren 27a bertsolari gazteen txanda izango da. Miren Amuriza, Odei Barroso, Ander Solozabal, Aimar Karrika, Joanes Etxeberria eta Ane Labaka Gurutzeko plazako institutuko eszenatokiari ariko dira. Gai jartzailea, kasu honetan, Sustrai Colina bertsolaria izango da.

Aste horretan bertan, urriaren 29an, haur programazioari lekua egingo zaio. Iruñeko Udalak Bertsoaroaren baitan antolatutako ekitaldi honetan, txotxongilo eta antzezleen ikuskizuna Konta Kati-

PROGRAMA

Emanaldi guztiak doan dira (bat ezik). Gonbidapenak saio hasi baino ordu bat lehenago jaso beharko dira.

● **Gaur. Bertsolaritzaren inguruko pelikula bat egiten: Bertsolari.** Asier Altuna eta Andoni Egaña.

Aurkezlea: Gontzal Agote. Erraldoien Txokoan, 19.30etan

● **Urriak 20, osteguna.** Bertso saioa: Julen Zelaieta, Xabier Silveira, Igor Elortza, Uxue Alberdi, Sebastian Lizaso eta Beñat Gaztelumendi. Gai jartzailea: Andoni Egaña. Gurutzeko plazako Institutuko areto nagusia. 20.00etan.

● **Urriak 27, osteguna.** Bertsolari gazteen saioa: Miren Amuriza, Odei Barroso, Ander Solozabal, Aimar Karrika, Joanes Etxeberria eta Ane Labaka. Gai jartzailea: Sustrai Colina. Gurutzeko plazako Institutuko areto nagusia. 20.00etan.

● **Urriak 29, larunbata.** Haur Programazioa. Txotxongilo eta Antzezleen ikuskizuna eta Kontakatillu antzerki taldea: *Katillukadak*. Mikael aretoa (Gurutzeko plaza) 12.00etan. 3 euro. (Iruñeko Udalak antolatutako ekitaldia).

● **Azaroak 3, osteguna.** Poema errezitaldiak: *Bitsa eskuetan*. Miren Agur Meabe eta Ibone Ibazeta. Nafarroako Antzerki Eskolako Xake aretoa. 20.00etan.

● **Azaroak 8, asteartea.** Bertso eta antzerkia: *Erregea eta Bufoia*. Ander Lipus eta Unai Iturriaga. Gurutzeko plazako Institutuko areto nagusia. 20.00etan.

● **Azaroak 10, osteguna.** Bertso saio musikatuak: *Jo zak berriz!* Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jon Maia eta Oskar Estanga bertsolariak, Carles Belda (trikitixa) eta Xabi Strubell (gitarra) musikariek batera. Aurkezlea: Ainhoa Aranburu Gurutzeko plazako Institutuko areto nagusia. 20.00etan.

lu antzerki taldearen *Katilluka* lanarekin tartekatuko dira.

Azaroaren 3an poema errezitaldi bat eskainiko da, *Bitsa eskuetan*, Miren Agur Meabe poeta eta Ibone Ibazeta musikariaren eskutik. Nafarroako Antzerki Eskolako Xake aretoa izango da ekitaldi honen eszenatokia.

Bertsoak eta antzerkiak bat egingo dute azaroaren 8an, Ander Lipus aktoreak eta Unai Iturriaga bertsolariak antzeztuko duten *Erregea eta Bufoia* lanaren eskutik. Barreak ziurtatuta daude inprobisazioaren oinarritutako ikuskizun honetan.

Bertsoaroak ekitaldi berezi batekin itxiko du zikloa. Azaroaren 10ean, arratsaldeko zortzietan, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Jon Maia eta Oskar Estanga bertso saio musikatu bat eskainiko duten, *Jo zak berriz*, Carles Belda (trikitixa) eta Xabi Strubell (gitarra) musikariek batera. Ainhoa Aranburuk aurkeztuta, musikariek proposatuko dituzte bertsolariek erabili beharreko doinuak. Musikariek doinuak aukeratu, bertsolariei helarazi, gaia eman... eta bertsolariak lanean hasiko dira.



Ander Lipusek 'Erregea eta bufoia' antzeztuko du. ARGAZKIA: UTZITAKOA.



Andoni Egañak bitan parte hartuko du Bertsoaroa zikloan. ARGAZKIA: UTZITAKOA.

KRÍTICA > FIKZIOA/AUTOLAGUNTZA

Autolaguntza gurean

SAILKATU EZINEZKO LIBURUA

Izenburua: Armadura herdoilduko zalduna
Jatorrizko izenburua: The Knight in Rusty Armor
Egilea: Robert Fisher Itzultzailea: Usoa Wyssenbach
Ibarra Argitaratze-urtea: 2011 Argitaletxea: Igela

INMA ERREA

ROBERT Fisher komedia-idazleak (Long Beach, California, 1922-2008) 1990ean eman zuen argitara liburu hau. Hori baino lehenago, hamaika gidoi eta elkarrizketa idatziak zituen umorista ezagun askorentzat; besteak beste, Groucho Marx, Bob Hope, Alan King eta

Lucille Ballentzat. Baina *Armadura herdoilduko zalduna* barrea eragiteaz besteko xedea hartuta idatzi zuen, bertan umorearen presentzia nabarmena bada ere: bi aldiz hiltzeko arriskuan egon eta bizirik atera eta gero idatzi zuen liburu hau Fisherrek, bizitza zoriontsu eta beteaz izateko irakaspen gutxi batzuk eza-gutzer eman nahian.

Liburuaren arrakastatsua (milioika ale saldu dira mundu osoan, hainbat hizkuntzatan) bezain sailkaezina da. Batzuen iritziz, literatura da, fantasiak eta metaforaz betetako ipuina. Beste batzuek, ordea, autolaguntza-idazlan maiz maiseatuen baina beti

arrakastatsuen beste adibide bat dela deritzote. Hainbatek helduei zuzendua dela diote (halakotzat hartzen dute enpresa-arduradunak trebatzeko erabiltzen dutenek edota haien bezeroei laguntzeko baliatzen duten psikologiaren arloko profesionalak), baina ez dira gutxi liburua haurrendako egokia jotzen dutenak (sarri askotan izan da gomendatua eta jorratua eskola eta ikastetxeetan). Jende anitzten gustuko izaki (ugariak dira Interneten inoiz irakurri duten libururik onena deritzotenen testigantzak), ez du biltzen guztien adostasuna (zenbaiten sinplistegia jotzen dute, heldutasunik gabea). Alabaina, gehienak bat datoz erraz irakurtzen den liburu dela esatean.

Behin irakurrita, iruditzen zait guztiek dutela arrazoia neurri batean. Liburuak elezaharren eitea

(protagonista zaldun bat da eta Merlin aziti betierekoak zer esan handia du istorioan). Baina, aldi berean, agerikoa da ipuinean gure garaikidekotzat jotzen ahal ditugun arazoan (antzinatzen irudikatzen gaitzak) protagonismoa: nor bere burua eza-gutzeko eta ezintasun emozionalak nahiz besteengandik banatzen gaituzten maskara eta harresiak gainditzeko saioak, munduari eta unibertsoari lotzen gaituen hari ikusezinak antzemateko ahaleginak, gizakiok munduan dugun eginkizuna eta gure bizitzaren zentzua ulertzeko nahia... Liburuaren arrakastaren gakoetako bat, dudarik gabe, mezuaren baikortasuna da: bizitza beteagoa eta zoriontsuagoa izango dugu, benetan ikasten badugu gure burua maitatzen, eta, horrenbestez, besteak ere aintzat hartzen.

Obraren prosa argia eta dinami-

koak ere zerikusia du liburuaren arrakastan, irakurleok aurrera aise egiteko laguntzen baikaitu. Usoa Wyssenbach Ibarra egindako euskal itzulpenak ederki islatzen ditu Robert Fisher egileak baliatutako umore-keinuak eta literatur-baliabideak, eta kontuan hartzekoa da ere itzulpena egitean euskal tradizioa ahaztu ez izana (gure bertsolaritzaren oihartzun agerikoa, Zaku-alai bufoiaren bertsoetan).

Azkenik, interesgarria iruditzen zait euskal literaturan oro har eta bereziki itzulitako obran orloan lortzen ari den aniztasuna, hala gaetan nola generoetan. Hobe da beti nor bere hizkuntzan denetik izatea (autolaguntzako liburuak barne, hala nola Eskarne Mujikak itzultitako *Zorte ona* hura edo *Zaldun* hau) eta euskaraz, bere txikian, hasi da hori gertatzen.